

Año LIII. urtea  
131 - 2021  
Urtarrila-ekaina  
Enero-junio



# FONTES LINGVÆ VASCONVM STVDIA ET DOCUMENTA

SEPARATA

---

**Arrangoitzeko euskararen  
bilakaera Kanadara igorri  
gutun pribatu baten  
argitan**

Maitena Duhalde de Serra

---

# Sumario / Aurkibidea

## Fontes Linguae Vasconum. Studia et Documenta

Año LIII. urtea - N.º 131. zk. - 2021

Urtarrila-ekaina / Enero-junio

### ARTIKULUAK / ARTÍCULOS / ARTICLES

Gulibarko aldaeraren inguruan (eta 3 – Txulapaingo azpialdaera: Elbarrena)  
Koldo Artola 9

---

Garibairen errefrauetako *diago*: euskara, zakurrak eta ustekabeko beste  
etimologia batzuk  
Borja Ariztimuño López 47

---

Emakumearen irudia Axularren *Geron*  
Enara San Juan Manso 61

---

Arrangoitzeko euskararen bilakaera Kanadara igorri gutun pribatu baten argitan  
Maitena Duhalde de Serra 89

---

Dialekto-berdintzeari Lezamatik begira: adinaren, generoaren eta hizkuntz  
jarrerren garrantziaz  
Azler García-Palomino 113

---

*Mabats* hitzaren etimologia  
Julen Manterola, Markel Lizasoain 147

---

Ohar etimologikoa: *golde*  
José Ignacio Hualde 179

---

### ERRESEINAK / RESEÑAS / REVIEWS

*Censura y Literatura. Memorias contestadas*  
Nerea Eizagirre 195

---

*El Vocabulario Pomier. Edición y estudio de un diccionario manuscrito  
anónimo euskera-español*  
Nerea Fernández de Gobeo Díaz de Durana 199

---

*Gipuzkoa antzinaroan: hizkuntzak eta eremu linguistikoak onomastikaren  
argitan*  
Jose M. Vallejo 205

---

# Sumario / Aurkibidea

*VARIA*

**Gipuzkoa in antiquity: languages and linguistic areas in the light of onomastics**

Luis Mari Zaldúa Etxabe

---

213

**Idazlanak aurkezteko arauak / Normas para la presentación de originales /**

**Rules for the submission of originals**

---

237

# Arrangoitzeko euskararen bilakaera Kanadara igorri gutun pribatu baten argitan

---

La evolución del euskera de Arrangoitze a la luz de una carta privada enviada a  
Canadá

---

The evolution of the Basque variety from Arrangoitze in the light of a private letter  
sent to Canada

Maitena Duhalde de Serra  
Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU  
maitena.duhalde@ehu.eus  
<https://orcid.org/0000-0002-3550-6998>

DOI: <https://doi.org/10.35462/flv131.4>

Bereziki eskertzen ditut lan honen aitzoneko bertsioa irakurri eta iruzkindu dutenak: Iñaki Camino, Céline Mounole eta Beñat Oyharçabal. Milesker hobekuntzak eta zuzenketak proposatu dizkidaten bi ebaluatzaile anonimoei. Erran gabe doa lan honetan atzeman daitezkeen hutsen eta gabezien arduradun bakarra autorea bera dela.

Lan honek *Basque in the Making: a Historical Look at a Language Isolate* (ANR-17-CE27-0011-01) eta *Monumenta Linguae Vasconum 5: periodización y cronología* (MINECO, FFI2016-76032-P) ikerketa-proiektuen laguntza izan du.

Jasotze data: 2021/03/24. Behin-behineko onartze data: 2021/04/06. Behin betiko onartze data: 2021/04/13.

## LABURPENA

Lan honetan Lapurdiko erdigunean kokaturiko Arrangoitze herritik Kanadara igorri gutun pribatu bat dakargu. Dataturik ez den gutun labur honen edizioa aurkeztu ondotik, hizkuntzaren ezaugarriak aztertuko ditugu, Louis-Lucien Bonapartek XIX. mende erdian bertan egin inkesten arrapostuak aintzat hartuz. Azkenik, tokiko berriemaileei esker bildu ditugun datuekin erkatuz, azken hamarraldietan Arrangoitzeko euskararen bilakaerari buruzko ohar zenbait ekarriko ditugu.

**Gako hitzak:** gutun pribatua; dialektologia; lapurtera; Arrangoitze.

## RESUMEN

Este trabajo presenta un episodio de correspondencia privada enviada a Canadá desde Arcangues/Arrangoitze, pueblo situado en el centro del Labourt. Hemos elaborado una edición de esta carta que no lleva fecha y analizado sus características lingüísticas, teniendo en cuenta los resultados obtenidos por Louis-Lucien Bonaparte en sus encuestas de la segunda mitad del siglo XIX. Hemos cotejado dichos datos con resultados obtenidos en nuestras encuestas con informantes de la zona; finalmente, ofrecemos una visión sobre el desarrollo del euskara de Arcangues/Arrangoitze en los últimos decenios.

**Palabras clave:** correspondencia privada; dialectología; labourtano; Arcangues/Arrangoitze.

## ABSTRACT

This work examines a private letter sent to Canada from Arcangues/Arrangoitze, a town located in the center of Labourd. After having edited this undated letter, its linguistics characteristics have been analyzed considering the data obtained by Louis-Lucien Bonaparte in his surveys during the second half of the 19<sup>th</sup> century. Additionally, the result of such exam has been compared to data obtained in our surveys with informants from the same area as the letter. Finally, we provide a better insight into the development of the Basque language of Arrangoitze/Arcangues in the last decades.

**Keywords:** private correspondence; dialectology; Labourdin; Arcangues/Arrangoitze.

1. AITZIN SOLASA. 2. LETRAREN DESKRIBAPENA. 3. HELBURUAK ETA ITURRIAK. 4. LETRAREN EDIZIOA. 5. HIZKUNTZAREN AZTERKETA. 5.1. Grafia-ri buruzko ohar zenbait. 5.2. Fonologia. 5.3. Izenaren morfologia. 5.4. Aditzaren morfologia. 5.5. Sintaxia. 5.6. Aldaerei eta lexikoari buruz pare bat ohar. 6. «LABOURDIN HYBRIDE». 6.1. Lapurdi mendebaleko eta ekialdeko ezaugarriak. 6.2. Arrangoitzeko euskararen bilakaera. 7. ONDORIO GISA. 8. ERREFERENTZIAK.

## 1. AITZIN SOLASA

Ondoko lerroetan ezagutzera eman zaigun gutun pribatu bat dakargu. Horren berri Amande Aninek, orduan Montrealeko Euskal Etxeko lehendakari zelarik eman zidan, 2017an bertara eginiko bidaian. Maluruski, egonaldi laburra izan zen eta ezin izan nuen originala nire begiez ikusi. Horregatik, Hugues Lacroix doktorea eskertu behar dut, gutunaren argazkiak helarazirik. Nola ez, gutun horren jabea den Bérard jauna bereziki eskertzen dut gutun horren lantzeko parada emanik.

## 2. LETRAREN DESKRIBAPENA

Gutuna laburra da, orri bakarrekoa –aitzinalde eta gibelalde, bitan doblatua– eta orotara 500 bat hitzekoa. Catherine Berrouet andereak izenpetzen du; haren alabari zuzendua da eta erregistro neutroa darabil, hots, bigarren pertsonako *zu* tratamendua. Aipatzen dituen gaiak egunerokoak dira, Ozeano Atlantikoaren bertzaldera igorritako presentak, zein familiaren berriak eta goraintziak.

Gutuna ez da datatua eta gutunazala galdutzat daukagu; Arrangoitzen idatzia dela zehaztua zaigu eta otsailean, baina urtearen data ez da markatua. Bérard jaunak, familiaren mugimenduen arabera, 1880-1892 urteen artean kokatzen du. Hala ere, ez dugu baieztapen honen frogatzeko funtsezko argumenturik, eta merezi luke Catherine Berroueti buruzko informazioa aurkitzea gutuna denboran hobeki kokatzeko. Pirinio Atlantikoko departamenduko artxiboetan miatzen egon baldin bagara ere, ez dugu jakin informazio gehiagorik atzematen.

Oroitarazi behar dugu garai hartan Ipar Euskal Herriko ikastetxeetan frantsesez ikasten zela. Izan ere, ezaguna da Jules Ferryren erreforma: lehenik, eskola publikoen lehen mailako irakaskuntza urririk finkatu zen 1881eko ekainaren 16ko legearekin eta ondoko urtean, 6 eta 13 urte arteko mutiko zein nesken eskolatzea baitezpadakoa bilakatu zen –1882ko martxoaren 28ko legea–. Errepublikarren xedea haurrak Estatuak hezteara zen eta horrek gatazkak sortu zituen Frantzian. Alde batetik xuriak eta bertzetik gorriak, azken hauek apezten irakaskuntza egituren kontra altxatzen baitziren.

Apezek euskaraz ematen zuten katixima eta tradizio horren itzala oraindik bizirik sumatu dugu, berriemaile zaharrenek katixima euskaraz ikasi dutela kondatu digutelako. Gehienek euskaraz irakurtzeko usaia izan dutela erran digute, baina idazteko ohitura gutiago. Egoera horrekin bat, gutun hau euskaraz idazten du Arrangoitzeko Berrouet andereak, baina grafiaren atalean ikusiko dugunez, frantses ortografiaren ezagutza ere suma daiteke.

### 3. HELBURUAK ETA ITURRIAK

Louis-Lucien Bonapartek lapurteraren barnean, alde batetik, *berezko lapurtera* (Sara, Ainhoa eta Donibane Lohizuneko euskara), eta bertzetik, *lapurtera hibridoa* (Arrangoitzekoa) bereizi zituen (1869/1991, 226. or.). Bertan egin inkestak bereziki baliagarriak izan zaizkigu XIX. mendeko Arrangoitzeko ahozko euskararen berri izateko, eta horrela, gutunean ditugun ezaugarriak eta Bonaparteren emaitzak konparatuz, Arrangoitzeko euskararen idatzia izan dela baieztatzeko.

Zehatzago, lan honetan bi eskuizkribu arakatu ditugu. Gonzálezek eta Aranek presatatu katalogoaren arabera izendatuko ditugunak (1989): argitaratu gabeko 12. eskuizkribua –BDV m/s Bv 74– zein argitaratu gabeko 30. eskuizkribua –BDV m/s Bv 75–, non herriz herri egin inkesten oharra markatzen dituen. Gainera, euskalkien eta azpi-euskalkien hiatoen emaitzak zehazten dituen argitaratu gabeko 16. eskuizkribua –BDV m/s Bv 84– ere aintzat hartu dugu.

Bertzetik, premiazkoa baita gure eremuko gaurko euskara dokumentatzea, azken urteetan Arrangoitzen bildu ditugun datuekin konparatu ditugu gutuneko zein Bonaparteren emaitzak, Arrangoitzeko euskararen bilakaerari buruzko ohar zenbait ekartzeko asmoz. Dialektologian ohikoak diren irizpideei esker hautatu ditugu lekukoak: adinekoak, inkesta egiten den herri horretan beti bizi izan direnak, ahalaz bi burusoak eta ezkontidea herri horretakoak dituztenak, guti eskolatuak. Zehazki, inkesta gehienak hizketa librean egin ditugu 2017. urteko neguan, Arrangoitzeko zazpi berriemalerekin –hiru emazte eta lau gizon– eta TASCAM markako grabagailuarekin grabatu ditugu, .wav formatuan.

Ikerlan honetan Lapurdi eremuari interesatzen baikara, Arrangoitzeko datuez gain, gure eremuarekin mugan diren eskualdeak ere aintzat hartu ditugu, aipatu ezaugarrien hedadura zehaztu ahal izateko: mendebalean, azken urteetan Sara eta Donibane Lohizunen bildu ditugun datuak izan ditugu oinarri; bertzetik, hego-ekialdean kokaturiko Uztaritzeko euskarari buruzko datuak Epelderren doktorego-tesiari esker ditugu (2004).

## 4. LETRAREN EDIZIOA

Ondoko lerroetan letraren jatorrizko grafia –ezkerreko zutabea– eta irakurketa errazteko, grafia gaurkoturik dakargu –eskuineko zutabea–. Erran behar da gutunaren ertzak andeatuak direla eta zenbait hitz ezin izan ditugula nahi bezala irakurri; hutsune horiek parentesi karratuen artean hiru punturekin adierazi ditugu eta ahal izan dugunean eskuineko zutabearen testua osatu dugu. Gure gehiketak, parentesi karratuen artean adierazi ditugu, eskuineko zutabearen; zuzenketen egiteko arrazoia, berriz, oinoharretan gehitu dugu.

Arcangues le 17 févrie

Ene alaba Maitea / iscribatçen dauskitçut  
bi Lerro ene / berrien emaiteco eta dembo-  
ra berean / çurien yakiteco espérantçan gu  
gusiatic / Aras ontsa gare yainco Maitearic  
/ esquer eta desiratçen Nuque çu ere / çure  
familliareqin hala causitçea / presenteco  
Lettra hau erresebitçean / beras nere Ala-  
ba Maitea çure / Lettraren erepusta igori  
dut ez dakit / eresebitu dusun eta gastiga  
sasuy / an eresebitu du[...] eta [...] / re  
çure Lettrareqin batean egorri gui / nuen  
ez dakit eresebitu othe din bai / nan [...] /  
I askico dusi gastigatçea eresebitu / badi-  
tusi uste dut jinen den erepusta / bainan  
helere<sup>1</sup> nic egin dautçut bertçe / Lettra be-  
har bainon lehenago eta era / nen dautçut  
sertacotz nere Alaba / Maitea egortçen  
dautçut paquetata / bat Aropa pusca batçu  
çuentzat hora / beras ser egortçen dudan  
nere Alaba / Maitea lehenic çuretçat guei  
pusca ba / eta eguinen dusu hartaric çu-  
retzat soin / bat eta guero bertçe gaiticoas  
çure nesq[...] / saharrenetaric hasic serorec  
icousicodusu / gueiyac diaouno eginen  
dusu Nahidusun / besala eta guero ber-  
tçalde be<sup>2</sup> egortçen / dausut bertçe Aras-  
tantça guei pusca / bat Nahi badusu Lusie  
tyikia eguinen / diosu yaca bat edo bertçe-

Arcangues, le 17 févrie[r].

Ene alaba maitea:

Iskribatzen daukitzut bi lerro ene berrien  
emaiteco eta denbora berean zurien jaki-  
teko esperantzan. Gu guziak arras ontsa  
gare, Jainko maiteari esker, eta desiratzen  
nuke zu ere zure familiarekin hala kau-  
sitzea presenteko letra hau errezebitzean.  
Beraz, nere alaba maitea, zure letraren  
errepusta igorri dut. Ez dakit errezebitu  
duzun eta gaztiga zazu eian errezebitu  
du[...] eta [...]re zure letrarekin batean  
egorri ginuen. Ez dakit errezebitu othe  
din, bainan [...] askiko duzi gaztigatzea.  
Errezebitu badituzi, uste dut jinen den  
errepusta. Bainan, halere, nik egin dau-  
tzut bertze letra, behar bainon lehenago,  
eta erranen dautzut zertakotz.

Nere alaba maitea, egortzen dautzut pake-  
ta bat: arropa pusca batzu zuentzat. Ho-  
rra, beraz, zer egortzen dudan, nere alaba  
maitea. Lehenic, zuretçat gei pusca ba[t]  
eta eginen duzu hartaric zuretçat soin bat,  
eta gero bertze gaitikoaz zure nesq[entzat]  
zaharrenetaric hasi[ri]k. Zerorrek iku-  
siko duzu. Geiak di[r]auno, eginen duzu  
nahi duzun bezala. Eta gero, bertçalde,  
egortzen dauzut bertze arrastantza gei  
pusca bat. Nahi baduzu Lusie ttikia[ri]

1 *helere* ‘halere’ dugu gutunean eta behin bakarrik ageri da. Pentsa daiteke ahozkoan asimilazioa gertatu dela edo bertzerik gabe, hutsa dela; izan ere, OEhk ez dakar, gure inkestetan ez dugu asimilazio hau kausitu, ez eta Bonaparteren eskuizkribuetan ere.

2 *be* idatzi eta marratu du idazleak.



nas pierri tyi / kiarentça isanen dusu seronec icusico / dusu nola saisun eta çuretçat galtçerdie / Lena pare bat eta soineco taulier bat / yosia hemen denac yosiac siren nic / puscac hartu nintin tokian eta bertçe / geui<sup>3</sup> pusca bat çure bi seme saharenen / tçat ez dakit nola eguinen dusun badire / bi berga bethi bien galtça eguinen tu / çtu<sup>4</sup> ez dakit bertçeric Atheratuco den seren / orai hoic gargo handituscoac dire nere / ustes beras nere Alaba Maitea eta / çure yaunarentçat galtça pare baten / guei ya bada hartan ere berga bat / eta orai bertçalde çure bi nesquentçat / panpin tyicki bana eta lusie tyikiaren / tçat ere hora beras hiru nesquentçat gau / sac tyikiac borondate ones handiagocoac / egori Nahiac egoritut tyikiac hastean / ez nuen egortçeco ideiyaric bainan idu / ritçen sisaitan haurrec nere Amodioa / gaduco<sup>5</sup> sutela eta guero egoritut [...] / tyiki bana Amodioa ez Aras galtceco dina / eta guero hiru Muticoentçat pilota / tyiki bana gomascoac eta orai bertçal / de nere Alaba Maitea gausa hoic egor / tçen dauskictu<sup>6</sup> ez Nahi dudan besalaco / ac bainan Ahal dudan besalacoac nere / Moyanaren Arabera beras bertçalde / çure famillias questione oroitçen çembeit / Aldis sutas eta çure famillias bainan / oroituric ere ser eguinen dut ez desaquet / deus egin bainan hoic gusien gatic / besarcatuco tutçu çure haur gaicho / hoic gusiaco nere partes nic egin nahia / seronec eta besarca sasu cure<sup>7</sup> yauna / ere nere partes beras nere Alaba maitea / orai ez dut bertçe berric pena balio denic / çuri eraiteco gu bethi besala gare

eginen diozu jaka bat edo, bertzenaz, Pierri ttikiarentza[t] izanen duzu. Zeronek ikusiko duzu nola zaizun. Eta zuretzat galtzerdi lena pare bat eta soineko taulier bat josia. Hemen denak josiak ziren nik puskak hartu nintin tokian. Eta bertze gei puska bat zure bi seme zaharrentzat. Ez dakit nola eginen duzun. Badire bi berga bethi, bien galtza eginen tutzu. Ez dakit bertzerik atheratuko den, zeren orai hoik gargo[ro] handituzkoak dire nere ustez. Beraz, nere alaba maitea, eta zure jaunarentzat galtza pare baten geia bada hartan ere berga bat. Eta orai, bertçalde, zure bi nesquentzat panpin ttiki bana eta Lusie ttikiarentzat ere. Horra, beraz, hiru nesquentzat gauzak ttikiak, borondate onez handiagokoak egorri nahiak, egorri tut ttikiak. Hastean ez nuen egortzeko ideiarik, bainan iduritzen zizaitan haurrec nere amodioa galduko zutela. Eta gero, egorri tut [...] ttiki bana, amodioa ez arras galtzeko dina. Eta gero, hiru muttikoentzat pilota ttiki bana, gomazkoak. Eta orai, bertçalde, nere alaba maitea, gauza hoik egortzen daukitzut, ez nahi dudan bezalakoak, bainan ahal dudan bezalakoak, nere moianaren arabera. Beraz, bertçalde, zure familiaz kestione. Oroitzen zenbeit aldiz zutaz eta zure familiaz, bainan oroituric ere zer eginen dut, ez dezaket deus egin. Bainan hoik guziengatik besarkatuko tutzu zure haur gaixo hoik guziak nere partez. Nik egin nahia zeronek. Eta besarka zazu zure jauna ere nere partez. Beraz, nere alaba maitea, orai ez dut bertze berri[ri]k pena balio denik

3 Gutunean *geui* agertzen da, baina bokalak trukatu dituela uste dugu; izan ere, letran zehar, lau aldiz *guei* markatzen du.

4 *tutçu* markatzen du, letrak trukaturik; irakur bedi *tutçu*.

5 Irakur bedi *galduco*.

6 *dauskictu* ageri da gutunean; irakur bedi *dauskitçut*.

7 Originalean *cure* irakurtzen dugu, baina *çure* litzateke.

ez / dakit nois Arthe bethi igaran garen / nois behar dugun camporat yuan / eta oinon hola gare ez dakit nois arthe / beras nere Alaba Maitea Milla gorain / tçi çure Ahispa severinen partes eta / Milla goraintçie jaunaren partes / eta Lau haurren partes eta Milla / goraintçi çure Alabatchiaren partes / eta jaunaren partes eta milla goraint[...]/ bi haur saharenen partes eta / bertçe bi haur tyikienen partes / Milla Milla goraintçi eta Milla / goraintçi Matanta Cathalinen / partes orai huntan finitçen dut / nere Lettra çuen berri onen espera / ntçan nere Alaba fidel Tombarai / no eta leheneco Aldietan besala / Aguertuco sare usayaco tokirat nic / Lettra egin nuenean oinon etçen untçi / a partitua bainan untçia Ariba / tçen denean Askico dusu usayan / aguertçea lehenetan besala beras / nere Alaba Maitea / Catherine Berrouet

zuri erraiteko. Gu bethi bezala gare. Ez dakit noiz arthe bethi igaran garen noiz behar dugun kanporat jua eta oinon hola gare, ez dakit noiz arthe. Beraz, nere alaba maitea, mila goraintzi zure ahizpa Severinen partez eta mila goraintzi jaunaren partez eta lau haurren partez. Eta mila goraintzi zure alabatchiaren partez eta jaunaren partez eta mila gorain[tzi] bi haur zaharrenen partez et bertze bi haur ttikienen partez. Mila mila goraintzi eta mila goraintzi matanta Cathalinen partez. Orai huntan finitzen dut nere letra, zuen berri onen esperantzan, nere alaba fidel tonbaraino. Eta leheneco aldietan bezala, agertuko zare usaiako tokirat. Nik letra egin nuenean oinon etzen untzia partitua, bainan untzia arribatzen denean askico duzu usaian agertzea, lehenetan bezala, beraz, nere alaba maitea. Catherine Berrouet

## 5. HIZKUNTZAREN AZTERKETA

### 5.1. Grafiari buruzko ohar zenbait

5.1.1. Herskari sabaikari edo palatal ahoskabeak <ty> grafema du: *Mutyicoentçat*, *tyikia*.

5.1.2. Igurzkari lepokariak zein apikariak <s> grafema dute: *besala* ‘bezala’, baina *usai*an dugu bokal artean. Hitz hastapenean <ç> dugu: *çu* ‘zu’ eta eratorrietan *çure* ‘zure’, *çuri*en ‘zureen’, *çuri* ‘zuri’, *çuretçat* ‘zuretzat’, baita *çembeit* ‘zenbait’ izenordainean ere; bertzeetan lepokariak <s> bidez markatuak dira: *sare* ‘zare’, *ser* ‘zer’, *seren* ‘zeren’.

Afrikatu lepokarian <tç> grafema dugu, salbu *çuretçat* eta *sertacotz*, <tz> baitute. Igurzkari eta afrikatu sabaiaurrekoan <ch> eta <tch> dugu, hurrenez hurren: *gaicho* eta *alabatchiaren*.

5.1.3. Herskari belar ahoskabeak <c> grafema du: *besarcatuco*, *causitçea*, *emaiteco*, *lehenic*; <k> ere badugu /i/ bokalaren aitzinean: *askico*, *ez dakit*, *tokian*; <qu> edo <q>, berriz, /e/ eta /i/ bokalaren aitzinean: *desaquet*, *esquer*, *familliareqin*, *nesquentçat*, *nuque*, *letrareqin*. Ipar Euskal Herriko idazleen euskal grafiari buruz, ikus Urgell (2018, 610.-612. or).

5.1.4. Hitz hastapenean <y> dugu sabaikariaren ordezkatzeko: *yainco*, *yakiteco*, *yinen*, *yosia*.

5.1.5. Herskari aitzineko sudurkariak <m> markatzen dira: *camporat*, *çembeit*, *dembora*, salbu *panpin*.

5.1.6. Dardarkaria zein bokal arteko ttapa <r> grafemaz markatzen ditu: *hiru*, *eraiteco* ‘erraiteko’, *saharenen* ‘zaharrenen’, *siren* ‘ziren’. Baina ez da beti hala: *berri*, *haurrec*, *lerro*.

Bonaparteren eskuizkribuetan ez dugu gutunean baden *oroit* hitza kausitu; baina badi-tugu *errhi*, *sorho*. Gaur egun dardarkari ubularrarekin ahoskatzen da Arrangoitzen *orroit*.

5.1.7. Grafia etimologikoak dira <tt>, <ll>, <qu> grafemak ondokoetan: *lettra*, *milla*, *questione*.

5.1.8. Frantsesezko ortografia arauak aintzat harturik, *Maitearie*, *galtçerdie*, *goraintçie* etsenpluetan /i/ ondoko <e> letra mutua da, ez da beraz ahoskatzen.

5.1.9. Puntuazio ikurrik ez dugu.

## 5.2. Fonologia

### 5.2.1. e + a eta o + a *hiatoak*

Gure gutunean disimilaziorik ez da ageri; gutunaren idazleak *-ea*, zein *-oa* markatzen ditu beti, agian erregistro jantzia edo idatziaren eraginez: *aguertçea*, *Amodioa*, *batean*, *berean*, *besalacoac*, *causitçea*, *denean*, *erresibitçean*, *gastigatçea*, *gomascoac*, *handiagocoac*, *handituscoac*, *hastean*, *maitea*, *nuenean*.

Baina badakigu, Bonaparteren eskuizkribuei esker, oinarrian *e* eta *o* bukaera duten hitzek mugatzailea hartzean disimilazioa dutela ahozkoan, hots, *-ia* eta *-ua* dira emaitzak Arrangoitzeko eskualdean, baita Saran eta Donibane Lohizunen ere (BDV m/s Bv 84). Marratxo bat gehitzen du *-ia* eta *-ua* hiatoaren azpian, segur aski goranzko diptongoa adierazteko.

Gaur egun ere hizketa librean disimilazioa ahoskatzeko joera argia entzun dugu Arrangoitzeko lekukoen artean, han-hemenka disimilaziorik gabeko etsenpluak baldin badira ere. Larresoron ere goranzko diptongoarekin ahoskatzen da gaur egun, baina ez da erabateko joera (Epelde, 2004, 64.-65. or.).

### 5.2.2. i ondoko [j] *irristaria*

Bonapartek *Phonologie de la langue basque dans tous ses dialectes* deitu eskuizkribuan, hiatoen emaitzak dakartza (BDV m/s Bv 84). Bertan *i* ondoko epentesia Donibane Lohizune eta ondoko herrietan bildu duela irakur dezakegu. Arrangoitzen, berriz, ez dakar ezaugarri honen berri eta gure lekukoei ere ez diegu entzun. Gutunean, <y> grafema dugu, baina badirudi diptongoa adierazten duela etsenplu hauetan: *ideiyaric*, *gueiyac* & *gueiya*.

### 5.2.3. u + a *hiatoa*

Ezaguna da *u* bokalaren palatalizazioa Lapurdi ekialdean (Epelde, 2004, 59.-61. or.), zein Nafarroa Beherean (Camino, 2016, 218.-219. or.). Epeldek azpimarratzen du *u + a*

hiatoaren ingurunean emaitzak ez direla homogeenak, baina *-uia* epentesia dugu nagusi Uztaritzen eta inguruko herri zenbaitetan (Epelde, 2004, 279. or.).

Bonapartek honen berri eman zuen; izan ere, *-uya* emaitza dakar Arrangoitzetik Hazparnera eta Nafarroa Behereko mendebalean (BDV m/s Bv 84). Gainera, Uztaritzen bertze bi emaitza ere bildu zituen: *-üya* eta *-üa* (Bonaparte, 1869/1991, 242. or.). Arrangoitzeko palatalizazioa, berriz, honela deskribatu zuen (243. or.):

Quant à la terminaison *uya*, lorsqu'on ne la prononce pas comme *ouya* français, elle a quelquefois pour variante, chez certains individus, non pas *üya*, mais presque *euya*, en donnant à l'*eu* le son qu'il a dans le mot *peu* (non pas celui du mot *veuf*) mêlé à celui de l'*ü*.

Arrangoitzeko letran ingurune honetan dugun adibide bakarra *partitiua* dugu eta ez da etsenplu argia. Akatsa izan daiteke edo agian idazleak <i> eta <u> letrak trukatu dituela. Hala ere, oroitaraz dezagun erronkarieran *u + a > iua* ezaguna dela (Mitxelena, 1954, 626. or.).

Dena den, Bonapartek dakartzan emaitzak gaur egun oraindik entzun daitezke Arrangoitzen. Horiez gain, Uztaritzen bildua zuen *-üa* ere sartu da gure hizkeran gaur egun. Bakan, baina Lapurdi mendebalean bezala *-ua* gorderik entzun daiteke eta ekialdean ezaguna den *-ia* ere ez da arrunt arrotza. Aditzetan, *-tu/-du* partizipio burutua + *a* ingurunean *-tüa/-düa* emaitza dugu nagusiki, gure lekukoek epentesiarekin ere ahoskatu izan dutena. Hona adibide sorta laburra: *bildüa & bildüia, esposatüa & esposatüia, gazitüia, haitüa* 'aritu', *hedatüia, kendüa, landatüa, pasatüa, partitüa, maskatüiak*.

Palatalizazioaren azken muga Arrangoitzeko eskualdeak markatzen du, mendebalerago ez baita ohiko ezaugarria. Izan ere, bertze gertakari bat dugu Lapurdi mendebalean, hau da, /u/ ondoko [β] epentetiko. Bonaparteren garaian eremu murrizteko ezaugarria da, Donibane Lohizunen, Ziburun, Biriatur eta Azkainen bildu baitzuen. Bertze herrietan eta Sarako eskualdean ez dirudi epentesia dagoenik XIX. mende erdian, baina *Le Dauphin* barkuko gutunak (Lamikiz, Padilla-Moyano & Videgain, 2015) aintzat hartuz, badirudi honen erabilera, idatzian bederen, zabalagoa izan dela.

#### 5.2.4. ue diptongoaren asimilazioa

Ekialdeko hizkeretan arrunta da *ue > ie* eta *ue > ie > ii* asimilazioa eta gaur egun ere *\*edun* adizkietan bereziki entzungarri dugu Arrangoitzen. Zehaztu behar da asimilazio hau bokal luzerik gabe ahoskatzen dela gure eskualdean. Bonapartek ezaugarri horren berri eman zuen Arrangoitzen XIX. mendearen erdian (BDV m/s Bv 75): *nin, zin, ginin*. Ez da harrizkekoa, beraz, gure gutunean hainbeste etsenpluren irakurtzea: *nintin* 'nituen', *dusi* 'duzue', *baditusi* 'badituzue', nahiz eta salbuespen batzuk ere baditugun *nuen, guinuen*.

Erran bezala, gaur egun ere asimilazioa dugu nagusi Arrangoitzen. Hala ere, emaitza hauez gain, gure lekuko zaharrenari bertze asimilazio mota bat ere entzun diogu,

Bonapartek Uztaritzeko eskualdean bildu zuena, hain zuzen ere (1869/1991, 242. or.); hona entzun dizkiogunak, guziak diptongoarekin ahoskatuak: *banüin*, *bazüin*, *düin*, *giniün* & *gindiün*, *gintüin*. Arbonan, itsas hegiko herriekin mugan kokatua den herrian –ez baita ezaugarri hau mendebalerago gauzatu–, palatalizatu gabe ere entzun daiteke diptongoa; hots, gehienetan *ue* > *i* asimilazioa entzun dugu, baita *ue* diptongoa ere.

#### 5.2.5. o → u / \_ n

Gutunean sudurkariaren aitzinean bokalaren hestea dugu erakusleetan, *huntan* edo *untçi* izenean, baina ez du indar handia, *ontsa* ere baitugu. Toki guzietan intentsitate bera izan gabe, sudurkari ondoko *o* > *u* hestearen hedadurak estatuen mugekin bat egi-ten zuela zehaztu zuen Mitxelenak (1961/1990). Ipar Euskal Herrian<sup>8</sup>, baita Nafarroa Garaiko Bidasoaldeko erakusleetan ere gertatzen da (Zelaieta, 2008, 120. or.).

Gaur egun *ontsa* arrunta da Arrangoitzeko eskualdean, baina zenbait aldiz goratzearekin entzun diegu lekukoei; era berean, *ongi* eta noizbehinka *ungi* ditugu Arbonan. Goratzea lehen mailako erakusleetan sistematikoa da, baita *non* galdetzailean eta eratorrietan ere; izenordainetan *zonbeit* eta *zunbeit* bildu ditugu. Larresoron ere goratzea ez da sistematikoa, baina Lapurdi ekialdera hurbildu arau indartuz doa gertakaria (Epelde, 2004, 281. or.).

#### 5.2.6. ai > ei asimilazioa

Gavelek (1920) azpimarratu zuenez, mendebaleko behe-nafarreran bereziki arrunta da *ai* > *ei* asimilazioa. Caminok joera honen berri ematen du Nafarroa Behereko testuetan XVI. mendetik aitzina; Lapurdikoetan, berriz, ez da ageri (Camino, 2008, 128.-129. or.).

Gutunean bi etsenplu ditugu: *guei* ‘gai’ eta *çembeit* ‘zenbait’. Juntagailuetan, berriz, ez dugu asimilaziorik: *bainan*, *bainon*.

Bourciezek eginarazi Arrangoitzeko itzulpenean *cembeit* dugu asimilaturiko etsenplu bakarra: *anaya*, *bainan*, *baitzin* ‘baitzuen’, *baitzitin* ‘baitzitzen’ (apud Vinson, 1908, 132.-133. or.).

Gaurko Arrangoitzen asimilazio hau baldin badugu ere, zehaztu behar dugu juntagailuak bi erataria entzun dizkiegula berriemaileei: *bainan* & *beinan* ‘baina’, *beinon* ‘baino’; halaber, aditz-aurrizkian *bait-* eta *beit-*: *beinin* ‘bainuen’, *beitzien* ‘baitziren’, *baitzuten*, *baitzioten* ‘baizioten’; *-gai* atzizkian bitasuna dugu: *senargaia* eta *senargeia*, *zezengaia* & *zezengeia*.

8 Ondokoa dio Mujikak, Ipar Euskal Herriko idazleen idatziak aztertu baititu: «Eraginik handiena Zuberoan izan zuen aldaketa horrek, baina lapurteran eta behe nafarreran ere ez da falta haren aztarnarik. Etxepareren eta Leizarragaren idatzietan ageri diren zenbait zalantza eta bitasun horren lekuko izan daitezke» (Mujika, 2002, 38. or.).

Larresoron ere ez da guztiz sistematikoa, salbu eta *-gai > -gei* atzizkiarekin (Epelde, 2004, 67. or.). Ekialdera hurbildu arau, indar gehiago du bilakaerak. Izan ere, Hazparnen Larresoron baino indar gehiago duela dio Epeldek (2004, 281. or.).

Diptongoa soildurik ere entzun ditugu ondokoak Arrangoitzen: *zerbit* ‘zerbait’, *bitzen* ‘baitzen’, *numbit* ‘nonbait’, *zombit* ‘zenbait’. Nafarroa Beherean eta Lapurdi ekialdeko berrikuntza honen hedadura Caminok zehaztua du (2016, 233. or.). Gehitu behar dugu Sarako eremuan ere entzun ditugula horrelakoak; ez, ordea, Donibane Lohizunen.

### 5.2.7. Hasperena

Hasperena sistematikoki markatzen du Berrouet andereak hitz hastapenean: *hala*, *handiagocoac*, *handituscoac*, *hartan*, *hartu*, *hau*, *haur*, *haurrec*, *haurren*, *hastean*, *h[a]lere*, *hemen*, *hiru*, *hora*, *hoic*, *huntan*; baita bokal artean ere: *ahal*, *ahispa*, *behar*, *lehenago*, *lehenetan*, *lehenic*, *nahi*, *saharenen*. Diptongo ondotikako etsenplurik ez dugu gutunean. Herskari hasperendunak ere baditugu, baina herskari horzkarien adibideak baizik ez: *arthe*, *atheratuco*, *bethi*, *othe*.

Bonapartek lapurteran hasperena galtzen ari zela ohartarazi zuen. Hala ere, Arrangoitzeko eskualdean hobeki gordetzen zela dio: «Ce derniers d’ailleurs [lapurtera], excepté le sous-dialecte d’Arcangues qui est mêlé de bas-navarrais occidental, ne se sert pas aussi souvent de l’*h* que les trois autres dialectes de France» (1869/1991, 243. or.).

Bertan egin zituen inkestetan ondoko ingurunean entzun zuen hasperena (BDV m/s Bv 75): hitz hastapenean *harrobi*, *hedoi*; bokal artean *ihortzorio*, *ehotzen*; albokari ozenaren ondotik *elhorri*, *ilhuntze*; dardarkari ondotik *errhi*, *sorho*; diptongo eta sudurkari ondotik, berriz, ez dugu etsenplurik kausitu. Herskari hasperendunak ere baditugu: biezpainkariak *aphiil*, *phintarr*; horzkariak *athe*, *athorr*; belarrak *mulkho*, *sukharr*.

Ezaugarri honi begira Arrangoitzeko eskualdea Lapurdi mendebaleko hizkerak baino gordetzailagoa da gaur egun ere. Nahiz eta aspirazioaren galeraren prozesuak gure eskualdean ere aitzina egin duen, gure adineko lekukoek hasperena oraindik ahoskatzen dute hitz hastapenean eta gutiagotan bokal artean; herskari hasperendunik, berriz, ez dugu entzun. Hona bildu ditugun zenbait etsenplu: *hamabi*, *han*, *harek* ‘hark’, *hasi*, *haur*, *hauzo* ‘auzo’, *hek*, *hemen*, *hitz*, *hola*, *behar*, *lehen*, *nahi*, *xahar*, *xehe*. Sarako eskualdean, aldiz, hitz hastapenean bakarrik entzun dugu hasperena eta hor ere, ez da sistematikoa; Donibane Lohizunen hasperenik ez dugu.

### 5.2.8. Joan aditzaren ahoskera

Joan aditzaren ahoskera berezia izaten da; gure letran *yan* aldaera dugu. Horra Gavelek zer dioen sabaikariaren ahoskerari buruz:

C’est en labourdin que le son primitif du *j* basque s’est le mieux conservé. Aujourd’hui encore il a dans ce dialecte la valeur d’un *i* consonne presque pur, avec, tout, au plus,

une très légère tendance, à peine sensible, à se faire précéder d'un petit son de *d*, ou même de *g*. En bas-navarrais, l'articulation du *j* est à peu près la même qu'en labourdin, sauf que, dans certaines régions surtout, ou du moins chez (sic) certains individus, la tendance à rapprocher le *j* d'un son de *d* mouillé est plus sensible. (Gavel, 1920, 118. or.).

Dena den, *joan* aditzari doakionez, Bonapartek gutunean ageri zaigun aldaera bildu zuen Arrangoitzeko eskualdean (BDV m/s Bv 75): *yuaiten*, *yuaiki da* (Arbona), *yuaiten*, *yuan*, *yuaen* (Arrangoitze). Uztaritzeko eskualdean ere *yuaiten*, *yuan*, *yuaan*, *yohan* entzun zituen (BDV m/s Bv 75) eta gaur egun Larresoron *yoan* & *yuan* oraindik entzun daitezke (Epelde, 2004, 55. or.).

Mitxelena *\*jo-* hastapena duten hitzen ahoskeraren bilakaera xeheki aztertu zuen, eta horien artean ditugu *gan* eta *goan* 'joan', Lapurdi mendebalean eta Baztanen eza-gunak direnak (1961/1990, 178. or.). Lapurdi itsas hegian eta Sarako eskualdean *guan* (Ahetze, Bidarte, Getaria, Sara) eta *gan* (Azkaine, Donibane Lohizune, Getaria) bildu zituen Bonapartek eta Donibaneko ahoskera zaigu nagusitu bi eskualdeetan gaur egun. Honen hedadura Arrangoitzeraino ere zabaldu da eta gure inkestetan ez dugu *yuan* erakorik entzun, *gan* 'joan', *gaten* 'joaten', *gana* 'joana' baizik.

#### 5.2.9. -rtz- kontsonante multzoa

Gutunean -rtz- kontsonante multzoa dugu: *bertçe*, *bertçalde*, *bertçenas*, *bertçeric*. Bonapartek -rtz- entzun zuen Lapurdiko eremu guzian (BDV m/s Bv 75): *bertze*, *bortz* (Uztaritze, Arrangoitze, Donibane Lohizune, Sara). Lapurdi mendebalean, Arrangoitze barne, ahoskera hau gorderik baldin badugu, Uztaritzen txandakatzea dugu gaur egun eta ekialdeko eragina duela suma daiteke (Epelde, 2004, 69.-70. or.): *bertze* & *beste*, *bortz* & *bost*.

#### 5.2.10. Asimilazio bustidurarik eza

Moutardek zehaztu bezala, lapurterak, behe-nafarrerak eta aezkerak *i* bokala ondotik /n, l/ kontsonanteak ez ditu palatalizatzen (Moutard, 1975, 18. or.). Asimilazio bustidurarik ez dugu gutunean: *bainan*, *eguinen*, *pilota*, *soineco*, bertzeak bertze; eta hala da gaur egun ere Arrangoitzen. Ezaugarri honi begira Lapurdi itsas hegiko euskara dugu aparte, bertan *i* bokalak eta *j* bokalerdiak eraginiko /n, l/ kontsonanteen bustidura emankorra baita.

#### 5.2.11. -n-ren galtzea etorkizuneko aditzetan

Etorkizuneko aditzetan, bokal arteko -n- ez da galtzen gutunean, baina idatziaren eragina izan daiteke: *yinen*, *eranen*, *isanen*. Ahozkoan, Bonapartek -n-ren galtzearen berri dakar: *yien* 'jinen' (Arbona), *yuaen* 'joanen' (Arrangoitze), *yaen* 'janen' (Basusarri); Saran ere bildu zituen *guaen* & *gaen* 'joanen' eta Donibane Lohizunen maizenik goratzearekin ditugu: *gain* & *gaen* 'joanen', *izain* 'izanen', *yain* 'janen' (BDV m/s Bv 74 & 75).

Gaur egun hiru eskualdeetan goratzea dugu; hona zenbait Arrangoitzetik: *emain*, *gain*, *izain*. Uztaritzeko eskualdean, herriaren arabera, *erráin* dugu Larresoron eta *erráan* Uztaritzen zein Hazparnen (Epelde, 2004, 295.-296. or.); bigarren hori arrotza da Lapurdi mendebalean.

### 5.3. Izenaren morfologia

#### 5.3.1. *Soziatiboa*

Ezagunak dira gure eremuaren ekialdean *-kin* eta *-kilan* atzizkiak, lehena maiztasun handiagorekin erabili ohi dela zehaztea aiantzi gabe (Epelde, 2004, 100. or.). Arrangoitzetik igorri gutunean *-kin* forma dugu eta hala da gaur egun ere Lapurdi mendebalean, ez baitugu gure lekukoen ahotik bigarrena behin ere entzun. Bonapartek ere ez zuen azken hori bildu, bi gurutzeren artean markatu baitu *kilan* atzizkia, erabiltzen ez zela adierazteko (BDV m/s Bv 75).

Gutunean ez bezala, mugatu singularrean edute genitiboko ttaparen erorketa dugu ahozkoan. Izan ere, Bonapartek «*-ae* plutôt que *-ai*» oharra dakar eta gure inkestetan goratzerik gabe bildu ditugu ondokoak: *ilarraekin, matantaekin, uraekin, urinaekin*.

#### 5.3.2. *Destinatiboa*

Destinatibo edo benefaktiboaren morfema *-(r)entzat* dugu gutunean: *çuretçat, Mutyicoentçat, nesquentçat, saharenentçat, tyikiarentçat, yaunarentçat*. XIX. mende erdian Bonapartek (BDV m/s Bv 75) *haentzat* bildu zuen eta gaur egun ere ohiko morfema da Arrangoitzen.

Gure ekialdeko hizkerari begiratzen badiegu eta Caminok zehazten duenez, *-(r)etako* & *-(r)endako/-(r)entako* atzizkiak Nafarroan, Nafarroa-Beherean eta Zuberoan erabiltzen dira destinatiboa adierazteko (Camino, 2013, 108. or.). Larresorok markatzen du muga, bertan bi formak *-(r)endako* eta *-(r)entzat* lehian baititugu (Epelde, 2004, 103. or.).

#### 5.3.3. *Muga adlatiboa*

Muga adlatiboa adierazteko *-(r)aino* atzizkia dugu Lapurdi mendebalean, baita Larresoron ere. Hazparnera hurbildu behar da *-(r)ano* aldaera entzuten hasteko (Epelde, 2004, 289. or.). Ez da harriztekoa, beraz, Berrouet andereak *nere Alaba fidel Tombaraino* iskribatzea.

#### 5.3.4. *Motibatiboa edo kausala*

Kausa adierazteko *-gatic* atzizkia dugu; horra gutunean dugun etsenplu bakarra: *hoic gusien gatic*. Arrangoitzen eginiko inkestetan ez dugu kausitu; Amikuzen ere bakan bildu ditu Caminok (2016, 316.-317. or.). Ondokoa Arbonako herrian entzuna dugu: *ta haingatic jende ainitz guaten baita arat*.

Galdetzailea, berriz, *-kotch* atzizkiarekin markatzen du Berrouet andereak: *sertacotch*. Arrangoitzen aditu dugu, aditzari gehiturik: *haurrik etzutelacotch*. Larresoron ezaguna da atzizki hau kausa adierazteko (Epelde, 2004, 91. or.); Lapurdi itsas hegian zein Sarako eskualdean ere entzuna dugu.

#### 5.3.5. *Ene eta nere pertsona izenordain arruntak*

Idatziaren hastapenean *ene* pertsona izenordain arrunta bi aldiz irakur daiteke, gutuna irekitzen duten lehen bi formulatan: *Ene alaba maitea / iscribatçen dauskitchut bi Lerro ene berrien emaiteco*. Baina erran behar da ondokik sistematikoki *nere* izenordain



berria darabilela arrangoiztarrak, 15 aldiz. Zehaztu dezagun *neure* aldaera hanpatu zahararen monoptongazioa litzatekeela Nafarroa, Gipuzkoa eta Lapurdiko *nerre* aldaera (Martínez-Areta, 2013, 304. or.).

Bonapartek *ene* eta *nerre* formak bildu zituen Donibane Lohizunen eta Saran (BDV m/s Bv 75), baina geroztik forma berria nagusitu da, gure berriemaileak lekuko. Bourciezen itzulpenean forma zaharra dugu Arrangoitzen eta Arbonan (apud Vinson, 1908, 132.-133. or.).

Lapurdi mendebalean bezala, gaur egun gure lekukoei *nerre* eta eratorriak entzun dizkiegu, Arrangoitzeko lekuko zaharrenak *ene* erabiltzeko joera duela ahanzi gabe. Nahiz eta forma berria nagusitu den, ez da guziz baztertu forma zahararen erabilera. Horregatik, gutunean bi formak agertzea ez zaigu harrigarri gertatu behar; forma zaharra gutunaren sar-hitzean bakarrik agertzen bada ere, oroitarazi behar dugu biak lehiari egon zirela, hots, aldaketaren tarteko garaia dugula.

Gure eremuarekin mugan den Uztaritze eskualdean, aldiz, forma zaharrari eutsi diote, genitiboan izenordain berria sartu dela baztertu gabe:

Edute genitiboko *nerre* aski arrunta da Larresoron. Esango nuke maiztasunaren aldeetik ohikoagoa dela *ene* –eta honen gainean eraikitzen dira eratorri guztiak–, baina hor dago *nerre* ere: *zato nere ikusterat* (Lar.). Noizbait aditu izan dut *nerri*, baina datiboan guztiz nagusi da *eni*. (Epelde, 2004, 108. or.)

### 5.3.6. Erakusleak

Bigarren graduko pluralean *hoik* darabil Berrouet andereak. Azken hau Lapurdi itsas hegian zein Sara eskualdean aditu dugu; Nafarroa Beherean (Camino, 2004, 468. or.) nola Lapurdi barnealdean (Epelde, 2004, 104. or.) ezaguna da, *ho(r)iek* erakuslearekin batera.

Bonapartek *hoik* entzun zuen Arrangoitzen, *horiek*, berriz, ez dakar (BDV m/s Bv 75); emaitza bera bildu dugu, gure lekukoek ere hala adierazten baitute erakuslea.

### 5.3.7. Izenordain indartuak

Zuberoatik Lapurdi ekialderaino *nihaur* saileko izenordain indartuak ditugu, eta hemen ere Uztaritze eskualdea dugu muga, *neroni* eta *nihaur* lehiakide baitira (Epelde, 2004, 108. or.); mendebalean, berriz, *neroni* saila dugu.

Lapurdi mendebalarekin bat egiten du ezaugarri honi begira Arrangoitzeko gutunaren idazleak, *seronec* ‘zeronek’ (bi aldiz) eta *serorec* ‘zerorrek’ (behin) iskribatzen baititu. Gaur egungo hitzunik bi forma hauek erabiltzen jarraitzen dute.

## 5.4. Aditzaren morfologia

### 5.4.1. Izan aditza

Lehen pertsona datiboan *zaut* ‘zait’ eta *zauzkit* ‘zaizkit’ erakoak ditugu Lapurdi ekialdean (Epelde, 2004, 282. or.) eta Nafarroa Beherean (Camino, 2016, 430. or.).

Hala ere, datiboa bigarren pertsonakoa denean, bi formak lehia ditugu Larresoron (Epelde, 2004, 282. or.): *zautzu* & *zaitzu* ‘zaizu’, *zauzkitzu* & *zaizkitzu* ‘zaizkizu’, *zautzui* & *zaitzui* ‘zaizue’, *zauzkitzui* & *zaizkitzui* ‘zaizkizue’.

Lapurdi mendebalera ez da hedatu *au* > *ai* berrikuntza; Bonapartek *-ai-* errodonak bildu zituen (BDV m/s Bv 75): *zait*, *zaizkit*, *zaitzu*, *zaizkitzu*, *zaitzue*, *zaizkitzue* Saran; Donibane Lohizunen emaitza berak ditugu.

Arrangoitzeko eskualdera itzulirik, mendebaleko hizkerekin bat egiten du Arbonak, *zait* eta *zaizkit* baititugu; Arrangoitzen, *zaut* berrikuntza sartu dela dirudi, baina salbuespena litzateke: *zaitak*<sup>9</sup> & *zaitan*, *zaik* & *zain*, *zaiku*, *zaikuk* & *zaikun*, *zaitzi* ‘zaizue’ (BDV m/s Bv 75); gutunean ere forma zaharra dugu: *icusico dusu nola saisun*.

Gure grabaketetan bietarik entzun dugu Arrangoitzen lehen pertsona datiboan, *zait* zein *zaut*; Euskararen Herri Hizkeren Atlasean ere biak bildu dira (1304. mapa); Arbonan, aldiz, mendebalerago kokatua den herrian, beti lehen dugu.

#### 5.4.2. \*Edun aditza

Lehen pertsonako *dut* adizkiaren aldaera erlatiboan forma zaharrak ditugu gutunean: *hora beras ser egortçen dudan nere Alaba Maitea / gausa hoic egortçen dauskictu ez Nahi dudan besalacoac bainan Ahal dudan besalacoac*. Bourciezek eginarazi itzulpenean ere hala da: *emadazu izan behar dudana* (apud Vinson, 1908, 132. or.). Gaur egun ere forma zaharra bildu dugu Arrangoitzen. Uztaritzeko eskualdean, aldiz, forma berria sartu dela dirudi: *Ze baxeraaldia dutana e(g)un!* (Epelde, 2004, 200. or.).

Iraganeko Nor Nork sailean, barneko *n* daukagu singularreko lehen pertsona subjektuan, hots, *nintin* ‘nituen’, pluraleko pertsona subjektuen analogiaz. Ezaugarri honekin bat, *nintiin* dakar Irizarrek Arrangoitzen (1997). Gure eremuaren ekialdean, *nitüin* dugu Uztaritzen, baina *nintiin* Hazparden (Irizar, 1999). Ekialderago joanez, ezaugarri honen berri dakar Caminok, hala nola Amikuzen eta inguruko hizkeretan (Camino, 2016, 449.-450. or.). Lapurdi mendebalean, aldiz, Irizarrek Sara eskualdean eta Lapurdi itsas hegian ez dakar analogiazko forma (Irizar, 1997). Hala ere, zehaztu behar da ipar-ekialdean kokatua den Getarian ezaguna dela *nintuen*, eta Ainhoan bitasuna dugula *nituen* & *nintuen*.

#### 5.4.3. Izan eta ukan

Gutunean *izan* aditza dugu jabegoa adierazteko: *tyikiarentça[t] isanen dusu*. Bonapartek argi utzi zuen *ukhan* eta *ukhaiten* ez zirela ibiltzen gure eremuan, biak bi gututzeren artean markatu baitzituen. Saran eta Donibane Lohizunen ere emaitza berak bildu zituen eta azken honentzat «*izan* = être et avoir» oharra dakar.

<sup>9</sup> Eskuizkribuan *zaitak* irakur daiteke, baina <au> zuzendu dela dirudi <ai> markatzeko. Bonapartek ez zuen erantzun hori espero ala lekukoak bere burua zuzendu ote zuen?

Larresorora hurbildu behar dugu *ukan* aditza entzun ahal izateko; Epeldek zenbait etsenplu dakartza, baina *izan* aditzarekin lehian dela zehaztuz (2004, 295. or.). Gure lekukoei ez zaie guziz arrotza, behin entzun baitiogu Arrangoitzeko berriemaile bati. Baina gutunean bezala, gaur egun ere halakoak ditugu nagusi: *extut izatu etxeik*; <sup>h</sup>*arek izatu du prefeentzia beti*.

#### 5.4.4. Aditz-izenak: -ite formak

Gutunean *-ite* formako aditz-izenak ditugu: *emaiten*, *eraiteco*. Arrangoitzen egin inkestetan Bonapartek ere *-ite* formakoak dakartza (BDV m/s Bv 74 & 75): *yuaiten* (Arbona), *emaiten*, *yuaiten* (Arrangoitze), *emaiten* (Basusarri). Hala ere, ez dirudi forma berriak arrotzak direnik Arbonan. Izan ere, orrialde baten xoko batean *emaiten* markatzen baitu eta *emaiten* bi gurutzeren artean, bigarren hau erabiltzen ez dela adierazteko. Baina Bourciezek eginaraziriko itzulpenetan, aldiz, *-ite* dugu herri berean (apud Vinson, 1908, 133.-134. or.): *emaiten*, *erraiten*, *iragaiten*.

Mendebalera hurbildu arau, forma berrien presentzia indartuz doa. Saran, Bonaparteren inkestetan forma berriak zein zaharrak lehian ditugu; orrialde batean *ematen* eta *erraten* markatzen ditu, baina *guaiten*, *i* letra gehituz, zuzenketa egin duela dirudi; urrunago, *guaten* & *gaten* ditugu, baina *emaiten* eta *erraiten*. Donibane Lohizunen forma berriak nagusi dira: *erraten*, *ematen*, *gaten*, *izaten*. *Le Dauphin* barkuko gutunetan (Lamikiz, Padilla-Moyano & Videgain, 2015) jadaneko bakan markatu dira forma zaharrak: bi irakurri ditugu Saran, alegia, *egoiten* eta *emaiten*; bakarra dugu itsas hegian, hots, Getarian, *emaiten*.

Gaur egun gure lekukoei *-ite* forma hauek ez dituzte erabiltzen, ez saratarrek ez eta arrangoitzarrek ere, honela, Lapurdi mendebaleko hiztunek bat egiten dute; hona bazuk Arrangoitzen entzunak: *atxematen*, *ematen*, *erematen*, *erraten*, *izaten*.

Hemen ere Uztaritze eskualdeak markatzen du etena gaur egun, bertan *-ite* nagusitzen baita, baina forma berriak ez dira arrotzak (Epelde, 2004, 119. or.).

#### 5.4.5. -tu pleonastikoa

Gutunean partizipio atzizkia duen *Atheratuco* aditz berezia dugu. Bonaparteren garaian baditugu *izan* & *izatu*, *atera* & *ateratu*, *irakurtu*, bertzeak bertze Donibane Lohizunen. Saran ere ezagunak dira, hona zenbait: *atheratu*, *izan* & *izatu*, *deitzitu*.

Bourciezen itzulpenetan ere *izatu* partizipio analogikoa dugu Arrangoitzen (apud Vinson 1908, 133. or.). Arrangoitzek mendebaleko Lapurdirekin bat egiten du, gure lekukoei *izatu* –gutiagotan, baina *izan* ere bai– eta *egotu* baitarabiltzate. Larresoron ere ez dira arrotzak azken bi hauek, baina *izan* eta *egon* dira maizenik erabiltzen (Epelde, 2004, 117. or.).

#### 5.4.6. \*Eradun

Gutunean *\*eradun* laguntzaile hirupertsonala dugu: *dautçut*, *dauskitçut*. Hona etsenplu bat: *nere Alaba Maitea egortçen dautçut paqueta bat*. Bonapartek ere Arrangoitzen *\*eradun* bildu zuen, gehienetan monoptongazioarekin: *daut* & *dat* ‘dit’, *dauku* & *daku* ‘digu’; Arbonan *datzut*, *dazkitzut* (BDV m/s Bv 75).

Artolak \**eradun* laguntzailea entzun zuen, baina *kostaldeko solezismoa* (Lafitte, 1944/1962) edo *datiboaren lekualdatzea* (Fernández & Ezeizabarrena, 2003) deitu fenomenoa Arrangoitzeraino hedatzen hasia dela ikus daiteke, bi formak lehian baitira (Irizar, 1997, 467. or.): *datzut* & *zaitut* ‘dizut’, *nauzu* ‘didazu’, *gaituzu* ‘diguzu’.

Bonaparteren garaian ez zen hala, bi gurutzeren artean markatzen baitu «*nau pour daut*» Arrangoitzeri dedikaturiko inkesta orrian. Gaur egun gure eskualdean berrikuntza nagusitu da; honela, ekialdean ezaguna den ezaugarri fonologikoarekin konbinaturik, bere-bereak diren formak ditu Arrangoitze eskualdeak: *nintin* ‘zidan’, *zintin* ‘zizun’, *gintin* ‘zigun’.

#### 5.4.7. Izan aditzaren forma jokatuak

Arrangoitzeko gutunean, *izan* aditzaren orainaldian *-e* dugu: *gare*, *badire*, *dire*. Bonapartek gure eremuan bildu zituen forma horiek (BDV m/s Bv 75): *zae*, *gae* –Lapurdi itsas hegian ere ezagunak– baita *gaa* eta *zaa* ere –Sarako eskualdean ere entzun zituenak–. Hots, biak markatzen ditu Arrangoitzen. Hamarkada batzuk geroago Bourciezek eginarazi itzulpenetan lehen formak ditugu (apud Vinson, 1908, 133. or.): *Erho zare*, *ene aita?*. Gure inkestetan, aldiz, bigarrenak entzun dizkiegu lekukoei Arrangoitze eskualdean eta, hortaz, Artolak XX. mende bukaeran bildu emaitzekin bat gatoz (Irizar, 1997, 465. or.): *za* & *zaa*, *ga* & *gaa*.

Lapurdi itsas hegian berranalisiak eraginiko formak baldin baditugu, ekialdekoak analogiaz sortuak dira (Ariztimuño, 2013, 419. or.). Izan ere, Uztaritze eskualdean *zira*, *gira* dira *izan* aditzaren oraineko forma jokatuak (Epelde, 2004, 122. or.).

### 5.5. Sintaxia

#### 5.5.1. *-nean denborazko perpausetan*

Denborazko perpausetan *-larik* berrikuntza dugu Nafarroa Garaian eta Nafarroa Beherean, Lapurdik *-nean* gorde duelarik (Camino, 2013, 118.-119. or.). Hala da gure gutunean, ondoko etsenpluak lekuko: *nic Lettra egin nuenean oinon etçen untçia partitiua bainan untçia Aribatçen denean Askico dusu usayan aguertçea*. Bourciezek eginarazi Arrangoitzeko itzulpenean ere atzizki hori gorderik dugu (apud Vinson, 1908, 133. or.).

Gure lekukoei ekialdeko hizkerekin bat egiten dute; izan ere, gure grabaketetan *-larik* berria bildu dugu; hona bi etsenplu: *gan nitzelaik Pariseat / xikiro jatia zelaik*. Iduri luke orokortu dela menderagailu honen erabilera. Ekialdean, atzizki berria ahozkoan arrunt sartua da Larresoron (Epelde, 2004, 196.-197. or.) eta egin ditugun inkestetan emaitzen arabera, mendebalean, Saran *-larik* dugu, baita Donibane Lohizunen ere, non *-larik* eta zenbait lekukori *-nean* bildu ditugun.

#### 5.5.2. *Denboraren muga: -(e)no*

Aditz jokatuari lotzen zaion *-(e)no* atzizkiak denboraren muga adierazten du. Gure gutunean behin agertzen da, *iraun* aditzari loturik: *diaouno*. Hizketa librean ez zaigu behin ere agertu, baina lekukoei ezaguna omen dute.

### 5.5.3. -(e)la konpletiboetan

Perpau konpletiboak osatzeko orokorra den -(e)la atzizkia dugu ondoko esaldian: *bainan iduritçen sisaitan hurrec nere Amodioa ga[l]duco sutela*.

### 5.5.4. Uste izan lokuzioa

Mendeko perpau osagarriak -(e)n atzizkia har dezake ‘uste izan’ lokuzioarekin: *uste dut yinen den erepusta*. Gure grabaketetan emaitza bera dugu Arrangoitzen: *uste uzu bizia den oi?* Euskararen Herri Hizkeren Atlasean ageri da Lapurdi itsas hegitik Zuberora ezaguna den ezaugarria dela (1802. mapa).

### 5.5.5. Othe partikula modala

*Othe* partikula modalaren agerraldi bakarra dugu: *ez dakit eresebitu othe din*. Caminok partikula estrapozizioan, hots, aditzaren eskuinean duten galderak bildu ditu Amikuzen (Camino, 2016, 382.-383. or.). Gure eremuan ez dugu halakorik aditu eta Larresorokoak ere beti dira aditzaren ezkerrean (Epelde, 2004, 187. or.). Partikula modalen erabilera eta analisi sintaktikoa proposatzen duen Monfortek (2020) egin inkestena arabera ere Lapurdin erabilera honek arrotza dirudi.

### 5.5.6. Edute genitiboa

Osagarri zuzena genitiboan agertzen da gutunean, Ipar Euskal Herrian eta Nafarroa ekialdean usaikoa baita: *iscribatçen dauskitçut bi lerro ene berrien emaiteco eta dembora berean çurien yakiteco espérantçan*.

## 5.6. Aldaerei eta lexikoari buruz pare bat ohar

5.6.1. *Arastantça* ‘hondar’ irakurri dugu gutunean; OEHk *arrestantxa* eta *arrestentxa* aldaeren berri dakar. Lapurdi mendebalean egin inkestetan ez zaigu agertu.

5.6.2. *Egori*, *egortçen*, *egortçeco* eta behin *igori* ditugu amak alabari zuzendu letran. Ezaguna da lehen forma Lapurdi itsas hegiko hainbat idazleren artean, Ziburuko Etxeberri, Xurio edo Haranaderren obretan bertzeak bertze, baita *Le Dauphin* barkuko gutunetan ere. Hala da Bourciezek eginarazi Arrangoitzeko itzulpenean (apud Vinson, 1908, 132. or.), baina *igorri* dugu Arbonan (134. or.). Bonapartek *igorri* entzun zuen Saran eta *egorri* Donibane Lohizunen (BDV m/s Bv 75) eta emaitza berak ditugu gure grabaketetan. Larresoron *igorri* bildu du Epeldek (2004, 244. or.).

5.6.3. *Eyan* ‘ea’ aldaera dakar Berrouet andereak. Lapurdi mendebalean *ian* bildu dugu, itsas hegitik Arrangoitzera, baita *eian* eta *ia* ere Donibane Lohizunen.

5.6.4. *Gargo[ro]* ‘gaurgero’ aldaera dugu gutunean; idazle lapurtarrek ere ibiltzen dute, hala nola, Ziburuko Etxeberrik, Haranburuk edo Gazteluzarrek. Lapurdi itsas hegian *gargeio* bildu dugu eta Zuazok *gargaio* dakar Saran (Zuazo, 2018, 159. or.).

5.6.5. Ekialde zabalean bezala, gure gutunean *jin* ‘etorri’ aditza dugu. Bonapartek *ethorri* eta *yin* aditu zituen Arbonan, *ethorri* (*un peu*) oharra dakar Basusarriri dedikaturiko orrialdean, baina *yin* bakarrik Arrangoitzen; Lapurdi mendebalean

*et(h)orri* dugu (BDV m/s Bv 75). Biak aditu ditugu Arrangoitzen, baina ekialdeko forma maiztasun gutiagorekin.

5.6.6. *Matanta* ‘izeba’ aldaera dakar gutunak eta gaur egun ere erabilia da Arrangoitzen, baita Sarako eta Donibane Lohizuneko eskualdeetan ere. Epeldek *matante* aldaera dakar Larresoron (2004, 254. or.).

5.6.7. *Oinon* ‘oraino, oraindik’ aldaera dugu gure gutunean. Arrangoitzen zein Saran *oino* entzun diegu gure lekukoei; Donibane Lohizunen *oñon* eta noizbehinka *oño*.

## 6. «LABOURDIN HYBRIDE»

### 6.1. Lapurdi mendebaleko eta ekialdeko ezaugarriak

Bonapartek Arrangoitzeko eskualdeko euskara lapurteraren barnean sailkatu bazuen ere, ekialdeko hizkeren eragina azpimarratu zuen: «le sous-dialecte d’Arcangues qui est mêlé de bas-navarrais occidental» (1869/1991, 243. or.). Gutun honen ezaugarri bereizgarriei begiratzen badiegu, hizkuntzalariaren erranak konfirma ditzakegu.

Lehenik, Arrangoitzek ekialdeko ezaugarri zenbaiten muga markatzen du, mendebalerago ez baitira hedatu *u + a* hiatoaren emaitzak eta *ue* diptongoaren asimilazioa. Aditz-izenetan *-ite* formak ditugu gutunean, baina ikusi dugu mendebalean forma berria gaina hartzen hasi zela eta gaur egun Arrangoitzeraino hedatu dela berrikuntza hau.

Hasperenaren galera mailaka doa, baina Arrangoitze Lapurdi mendebaleko hizkerak baino gordetzaileagoa da. Bertze kasu batzuetan, eten garbirik ez baldin bada ere, zenbait ezaugarri indar gehiago dute ekialdera hurbildu arau; horien artean ditugu *o → u / \_ n* eta *ai > ei* asimilazioa.

Baditugu ekialdeko berrikuntzak Arrangoitzera hedatu ez direnak, baina Uztaritzeko eskualdean arrotzak ez direnak, hala nola, *-kilan* sozietiboa eta Nor Nori saileko *-auberria*. Indar guti du, baina ezaguna da *zaut* ere Arrangoitzen. Bertzetik, Lapurdi mendebalean diren ezaugarri zenbait Uztaritze eskualderaino hedatzen dira, baina ekialdeko formekin lehian dira: *neroni* eta *nihaur* izenordain indartuen sailak, *-rendako* eta *-rentzat* destinatiboa adierazteko, *izan* & *izatu* zein *egon* & *egotu*.

Bertze ezaugarriei begira, Lapurdi mendebalearekin bat egiten du Arrangoitzek. Honela, *ner* pertsona izenordain arrunta eta eratorriak nagusitu dira, *ene* zaharra oraindik entzun daitekeela ahantzi gabe; Uztaritzen, berriz, *ner* ez da arrotza baina eratorriak forma zaharraren gainean eraturikoak dira. Ez dugu erraten ahal *ukan* aditza arrotza denik Lapurdi mendebalean, baina *izan* erabili ohi dute gure lekukoek jabegoa adierazteko. *Izan* aditzaren aldaerak *gare*, *zare* ditugu gutunean –Bonapartek *gara* eta *zara* ere bildu zituen–, baina ez dugu, Lapurdi ekialdean bezala, *gira*, *zira* analogikorik.

Ondoko taulan gure erranak laburbildu ditugu; gutunean ageri ez diren datuak, baina Bonaparteren eskuizkribuetan irakurri ditugunak, parentesien artean gehitu ditugu:

1. taula. Arrangoitzeko gutuna: Lapurdi mendebaleko eta ekialdeko ezaugarriak

Lapurdi mendebala	Lapurdi ekialdea
<i>-rtz-</i> kontsonante multzoa	( <i>u + a</i> hiatoaren emaitzak)
<i>ner</i> izenordaina	<i>ue</i> diptongoaren asimilazioa
<i>neroni</i> saileko izenordain indartuak	hasperena
<i>-rentzat</i> destinatiboa	<i>yuan</i> ‘joan’
( <i>izatu, egotu</i> )	( <i>zaut</i> )
<i>gare, zare</i> ( <i>gara, zara</i> )	<i>-ite</i> aditz-izenak

## 6.2. Arrangoitzeko euskararen bilakaera

Bonapartek XIX. mendearen erdian bildu datuek eta Arrangoitzeko letra honetan ageri diren ezaugarriek bat egiten dutela ikusi dugu. Azken hamarraldietan Arrangoitzeko euskarak izan duen bilakaerari buruz ohar zenbait ekarri nahi genituzke, azken urteetan bertan bildu ditugun datuekin erkatuz.

Hasperenaren galtzearen fenomeno orokorra da gure hizkeretan (ikus Jauregi & Epelde, 2013), nahiz eta, lehenago erran bezala, Arrangoitzen hitz hastapenean eta bokal artean oraindik entzun daitekeen; herskari hasperendunik ez dugu entzun.

Lapurdi ekialdean ezagunak diren hainbat ezaugarri bereizgarri oraindik entzun daitezke. Ezaugarri hauen muga markatzen du Arrangoitzek, eta lehenago aipatu ditugunak dira: *u + a* hiatoaren emaitzak eta *ue* diptongoaren asimilazioa. Xehetasunetan sartuz, ikusi dugu XIX. mendean Uztaritzen jadaneko bildu zuen *-üi* sartu dela Arrangoitzen; ekialdeko *-ia* zein mendebalean bezalako *-ua* bakan aditu ditugu.

Denborazko perpausetan *-larik* arrunt sartua da Arrangoitzen, gutunean *-nean* dugularik. Baina hedatze hau urrunago joan da, itsas hegiraino heldu baita.

Bertzetik, Arrangoitzeko euskara Lapurdi mendebaleko bertze hizkeretara hurbiltzen duten berrikuntzak baditugu, XIX. mendean oraindik sartuak ez zirenak. Gaur egun Arrangoitzen *joan* aditzaren aldaera *gan* dugu, *-ite* aditz-izenik ez dugu bildu eta *\*eradun* laguntzaile hirupertsonala ez dugu entzun, baizik eta datiboa lekuz aldatuz duen aditz-sistema. Azken ezaugarri horrekin, Bonaparteren hitzak berriz hartuz, Arrangoitzek bere *hibridotasuna* erakusten segitzen du, ekialdeko fonologia ezaugarriekin batuz, azken hamarraldi hauetan sortu diren emaitzak baitira *nintin* ‘zidan’, *zintin* ‘zizun’ edo *gintin* ‘zigun’. Aldaeretan, *etorri* aditza maizago entzun dugu ekialdeko *jin* baino.

Laburbildurik dakargu gutunaren eta gaurko mintzoaren arteko konparaketa ondoko taulan. Zehaztu behar dugu *u + a* hiatoaren emaitzen eta hasperenaren kasuan, Bonaparteren datuekin osatu dugula.

## 2. taula. Arrangoitzeko euskararen bilakaera

	Arrangoitzeko gutuna	Gure datuak (XXI. mendea)
<i>u + a</i> hiatoaren emaitzak	<i>-uia, -üia</i>	<i>-uia, -üia, -üa</i>
<i>ue</i> diptongoa	<i>i</i>	<i>i, üi</i>
hasperena	#h, vhv, ph, th, kh, lh, rh, rrrh	#h, vhv
<i>joan</i> aditza	<i>yuan</i>	<i>gan</i>
<i>-ite</i> aditz-izenak	+	-
*ERADUN	+	-
datiboaren lekualdatzea ‘eman nau’	-	+
denborazko perpausak	<i>-nean</i>	<i>-larik</i>
aldaerak	<i>jin</i>	<i>etorri, jin</i>

## 7. ONDORIO GISA

Nahiz eta gutunaren data ez dugun zehaztu ahal izan, Bonapartek XIX. mendearen erdian Arrangoitzen bildu zituen ezaugarriekin bat egiten duela argi dugu; hona zerrenda: *ue* diptongoaren asimilazioa, hasperena, *yuan* ‘joan’ aditza, *-rtz-* kontsonante multzoa, asimilazio bustidurarik ez, *-kin* sozietiboa, *-tzat* destinatiboa, *ene* eta *nere* ize-nordain arruntak, *hoik* erakuslea, *neroni* saileko izenordainak, *ukan* aditzaren presentzia eza, *-ite* aditz-izenak, *\*eradun* laguntzaile hirupertsonala, *gare*, *zare* berranalisiak.

Lehenago erran bezala, Bonapartek lapurteraren barnean kokatu zuen Arrangoitzeko hizkera eta ekialdeko hainbat ezaugarri haraino hedatu zirela zehaztu zuen. Lapurdi mendebaleko bertze hizkeren datuak ekartzean erakutsi dugu hala dela, ezaugarri hauek ez baitira Arrangoitzeren ezkerrean ageri. Honela, Arrangoitzeko euskararen ezaugarrien konbinazio eskusiboaren berri eman dugu eta Bonapartek hizkera honen nortasuna agerian emateko arrazoiarekin bat gatoz.

Izan ere, hainbat ezaugarriren muga markatzen duela ikusi dugu. Badira, alde batetik, ekialdeko ezaugarriak Arrangoitzera hedatu direnak –baina Lapurdi mendebalean arrotzak direnak–, eta, bertzetik, Arrangoitzek bat egiten du Lapurdi mendebaleko hizkerekin, hainbat berrikuntza ez baitira Lapurdi ekialdean ezagunak. Honela, muga duen Uztaritzeko eskualdearekin partekatzen ez dituen ezaugarrien berri eman dugu.

Azkenik, Arrangoitzeko gutunari esker, baina baita Bonaparteren emaitzei eta azken urteetan bildu ditugun datuei esker ere, Arrangoitzeko euskararen bilakaeraren berri eman ahal izan dugu. Hemen ikusi ditugun ezaugarriak dagokienez, funtsean, Arrangoitze mendebaleko hizkerari begira egon dela ondorioztatu ahal dugu.

## 8. ERREFERENTZIAK

Ariztimuño, B. (2013). Finite verbal morphology. In M. Martínez-Areta (arg.), *Basque and Proto-Basque* (359.-427. or.). Frankfurt am Main: Peter Lang.



- Bonaparte, L.-L. (XIX. mende erdia). *Contestaciones a cuestionarios dialectológicos referentes a Ainhoa, Arcangues, Armendaritz, Iholdy, Arnegui, Ascain (Serres), Guetari, Bidart, Ayerre, Bassussarry, Biriatu, Behobie, Fontarrabie, Domezain, Elizondo, Uriz, Lizaso, Vera, Espelette, Souraide, Itsassou, helette, Isturitz, Irisarry, Loohossoa, macaye, Mendoionde, St. Esteban, St. Martin, Meharin, Saint-Pierre d'Irube, Mouguerre, Ustaritz, Larresore, Villefranque, Valcarlos y otros en un cuadro* (sic). Argitaratu gabeko eskuizkribua. Bizkaiko Foru Liburutegian eskuragarri: <http://hdl.handle.net/20.500.11938/81937>
- Bonaparte, L.-L. (XIX. mende erdia). *Phonologie de la langue basque dans tous ses dialectes : comprenant les règles de la prononciation, de l'accent tonique et du changement des lettres ; suite de la loi de l'affinité ou classification des dialectes, sousdialectes et variétés de l'euscara : d'après de nombreux renseignements pris sur les lieux en 1856, 1857, 1866 et 1867* (sic). Argitaratu gabeko eskuizkribua. Bizkaiko Foru Liburutegian eskuragarri: <http://hdl.handle.net/20.500.11938/81941>
- Bonaparte, L.-L. (XIX. mende erdia). *Contestaciones a cuestionarios dialectológicos en el País Vasco-Francés*. Argitaratu gabeko eskuizkribua. Bizkaiko Foru Liburutegian eskuragarri: <http://hdl.handle.net/20.500.11938/81949>
- Bonaparte, L.-L. (1869/1991). *Le verbe basque en tableaux*. In *Opera Omnia Vasconice I*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Camino, I. (2004). Nafarroa Behereko euskara. *FLV*, 97, 445-486.
- Camino, I. (2008). Nafarroa Behereko euskara zaharra. *ASJU*, 42(1), 101-169.
- Camino, I. (2013). Euskalkien historiaz: Lapurdi eta Nafarroa Garaia. In R. Gómez, J. Gorrochategui, J. A. Lakarra & C. Mounole (arg.), *Koldo Mitxelena Katedraren III. Biltzarra* (77.-140. or.). Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU.
- Camino, I. (2016). *Amiküze eskualdeko <sup>h</sup>eskuara*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Epelde, I. (2004). *Larresoroko euskara (Dialektologia azterketa)*. Vitoria-Gasteiz, UPV/EHUko doktore-tesi argitaragabea.
- Euskaltzaindia. (2008-). *Euskararen Herri Hizkeren Atlas*a [EHHA]. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Fernández, B. & Ezeizabarrena, M.-J. (2003). Itsasaldeko solezismoa, datiboaren lekuadatearen argipean. In J. M. Makatzaga & B. Oyharçabal (arg.), *Euskal Gramatikari eta Literaturari buruzko ikerketak XXI. mendearen aitari*. *Iker*, 14 (255.-277. or.). Bilbo: Euskaltzaindia.
- Gavel, H. (1920). Éléments de Phonétique Basque. *RIEV*, 12, 1-542.
- González Echegaray, C. & Arana Martija, J. A. (1989). *L. L. Bonaparte. Eskuizkribuak - Argitarapenak. Manuscritos - Publicaciones* (Katalogoak 1). Bilbo: Euskaltzaindia.
- Irizar, P. (1997). *Morfología del verbo auxiliar labortano (estudio dialectológico)*. Bilbo: UPV/EHU & Euskaltzaindia.
- Irizar, P. (1999). *Morfología del verbo auxiliar bajo navarro occidental (estudio dialectológico)*. Bilbo: UPV/EHU & Euskaltzaindia.
- Jauregi, O. & Epelde, I. (2013). Hasperenaren galera Iparraldeko euskararen. In R. Gómez, J. Gorrochategui, J. A. Lakarra & C. Mounole (arg.), *Koldo Mitxelena Katedraren III. Biltzarra* (245.-262. or.). Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU.

- Lafitte, P. (1944/1962). *Grammaire basque (navarro-labourdin littéraire), édition revue et corrigée*. Bayonne: Amis du Musée Basque & Ikas.
- Lamikiz, X., Padilla-Moyano, M. & Videgain, X. (2015). *Othoi çato etchera. Le Dauphin itsasontziko euskarazko gutunak (1757)* (Lapurdumen ale bereziak, 2). Baiona: IKER.
- Martinez-Areta, M. (2013). Demonstrative and Personal Pronouns. In M. Martinez-Areta (arg.), *Basque and Proto-Basque* (283.-321. or.). Frankfurt am Main: Peter Lang.
- Mitxelena, K. (1954). La posición fonética del dialecto vasco del Roncal. *Via Domitia*, 1, 123-157. Berrarg. in *Obras Completas*, VII, 611-647.
- Mitxelena, K. (1961/1990). *Fonética histórica vasca*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia. Berrarg. in *Obras Completas*, VI, 1-546.
- Mitxelena, K. & Sarasola, I. (1987-2005). *Orotariko euskal hiztegia* [OEH]. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Monforte, S. (2020). *Galderetako -a, al eta ote partikulak euskaraz: sintaxia, mikroaldakortasuna eta interpretazioa*. Vitoria-Gasteiz, UPV/EHUko doktoretesi argitaragabea.
- Moutard, N. (1975-1976). Étude Phonologique sur les Dialectes Basques. *FLV*, 19, 5-42; 20, 141-189; 22, 9-54.
- Mujika, J. A. (2002). *Euskal ortografiaren hastapenak Iparraldeko literaturan*. Bilbo: UPV/EHU.
- Urgell, B. (2018). Lehen euskara modernoa. In J. Gorrotxategi, I. Igartua & J. A. Lakkarra (arg.), *Euskararen historia* (543.-657. or.). Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaur-larritza.
- Vinson, J. (1908). Spécimens de variétés dialectales basques (suite). *RIEV*, 2, 129-135.
- Zelaieta, E. (2008). *Baztan-Bidasoako hizkeren azterketa dialektologikoa*. Bilbo: Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia.
- Zuazo, K. (2018). *Sarako euskara*. Bilbo: UPV/EHU.

